

IMPERIO -MUSEO DE LA FICCIÓN

MATÍAS UMPIERREZ

Martxoa 1 – Apirila 8

Astelehenetik ostiralera: 16:00 – 20:30

Bideo-instalazio

46 min

EU,ES,FR,EN

Gehienetan, museo batek objektu edo dokumentazio multzo bat gordetzen eta erakusten du, giza existentziaren eta bere ingurumenaren alderdiak agerian jartzen dituen multzoa, oraingo eta etorkizuneko belaunaldiek ezagut ditzaten. Baina **nola “museifika” daiteke fikzioa?** Galdera horri erantzuteko, Matías Umpierrez artista diziplinartekoak lehen *Museo de la Ficción* delakoa egiteari ekin dio: zenbait instalazio performatibo, arte bizien, bideoartearen eta *site-specific* eskuhartzeen bidegurutzean dabiltzanak, fikzioaren denbora- eta espazio-mugak hautsiz, zertarako eta eraikuntza dramatiko bat nola gorde asmatzeko oraingo eta geroko oroimen kolektiboarentzat.

Museo de la Ficción honen lehen piezak *IMPERIO* du izenburua, eta William Shakespeareren *Macbethen* egokitzapen bat da, Umpierrezek sortua eta laurogeita hamarreko hamarkadako Espainia diktadura ostekoan girotua. *IMPERIO*k agerian jartzen du fikzioa bitartekaritza sozial eta politikorako tresna bat dela; nola, eta “mix” bat sortuz aisiarako industriaren, egungo botere-mekanismoen eta tradizioa eta globalizazioa aurrez aurre jartzeak pizten duen suminaren artean. Bertsio honetan, emakume batek egiten du Macbethena (**Ángela Molinak**), eta Lady Macbethena, berriz, gizon batek (**Robert Lepage**), “ze, pieza honetan, generoek ez dituzte baldintzatzen pertsonaien jokabideak, botere-nahi zigorgabeek baizik ez dute balio, historian zehar aldagabe irauten baitute, hala nola mundua gobernatzen duten sistema ekonomiko eta politiko gehienak bultzatzen dituen diru-gose eta gutuziak”, azaltzen du zuzendariak. Aktore talde bikaina osatzen dute, besteak beste, **Elena Anaya, Chema Tena, Ana Torrent, Adolfo Fernández Duncan, Javier Pereira, Tessa Andonegui, Javier Tolosa** eta **Bore Buikak**.

Museo de la Ficción lanaren mundu mailako estreinaldia Donostiako San Telmo Museoko Laborategi aretoan izango da, 2018ko martxoan. Lauki bat osatzen duten lau pantaila dira, 5 x 3 metrokoa bakoitza, eta piezaren lau ikuspegi desberdin ageri dituztela. **Ikusleek ezinbesteko eginkizuna dute** esperientzian murgiltzen direnean: ikusle bakoitzak bere muntaketa egiten du, bere dramaturgia sortzen, ikusi nahi duen edo nahi ez duen hartatik abiatuta.

Matías Umpierrez artistaren lanak ikuslearen eta fikzioaren arteko loturen modalitate garaikideen inguruan arakutzen du. Marko horretan, haren proiektuak arte eszenikoen, ikus-entzunezkoen eta zinearen arteko mugaldeen dabilta, eta ikuslearen, agertokiaren, diskurtsoaren, eszenaren eta lurraldearen arteko dialektika jartzen dute arian.

Haren lanak ohikoak ez diren espazioetan aurkeztu izan dira, hala nola eraikin abandonatuetan, tren-geltokietan, elikagai-fabriketan, elizetan, basoetan; edota antzoki, zine eta museoetan; besteak beste, MoMA (New Yorkeko Arte Modernoko Museoa), Saô Pauloko Pinacoteca museoa, Reina Sofía museoa (Madril), Buenos Airesko Complejo Teatral, Centro Dramático Nacional (Madril), Lincoln Center Film Society New York eta abarretan.

Museo de la Ficción-erako IMPERIO pieza Donostia Kultura, San Telmo Museoa, dFERIA eta Studio Matías Umpierrez-en koprodukzioa da. Eskerrak bereziki *Rolex Mentor and Protégé Artis Initiative*-ri, laguntzagaratik.

- Aurrestreinaldia: 2018ko otsailaren 3-4a. Gemäldegalerie museoa, Berlin. Rolex Art Weekend-ek aurkeztua.
- Estreinaldia: 2018ko martxoan. San Telmo Museoa. Donostia. San Telmo Museoak, Donostia Kulturak eta dFERIAk aurkeztua.